

Donostian, 1997ko maiatzaren 30ean

E. Knörr, euskaltzainburuordea,
 P. Goenaga, idazkaria,
 J. A. Arana, diruzaina,
 P. Altuna,
 P. Charritton,
 J. L. Davant,
 X. Diharce,
 X. Kintana,
 F. Krutwig,
 E. Larre,
 J. M. Lekuona,
 B. Oihartzabal,
 P. Ondarra,
 Tx. Peillen,
 J. San Martin,
 I. Sarasola,
 J. M. Satrustegi,
 A. Urrutia,
 eta L. Villasante,
 euskaltzainak

eta Donostian, Foru Diputazioaren jau-
 regian, 1997ko maiatzaren 30ean, goize-
 ko 10ak eta laurdenetan, eman zaio
 hasiera Euskaltzaindiaren hileroko bil-
 kurari. Ezkerraldeko zutabeen aipatzen
 diren kideak bildu dira E. Knörren bu-
 ruzagitzapean. Ezin etorria adierazi dute
 honako kide hauek: J. Haritschelharrek,
 M. Azkaratek eta Pello Salaburuk.

Aurreko agiria onartzea.

Aurreko hileko agiririari ohar xume batzuk
 egin dizkio E. Knörrek. P. Ondarrak bere
 izena zerrendan ezartzea eskatu du. Zu-
 zenketa horiek, agiria ontzat eman da.

Doluminak

Mahaiburua berrikitan gertatu den J.J.
 Zearreta ekonomi eragilearen amaren he-
 riotzaren berri eman du eta Euskaltzain-
 diaren dolumina erakutsi.

1. Hizkuntza arauak.

1.1.1. Hiztegi Batuko garandu-gogoangarri zerrenda onartzea.

Euskaltzainek aurkeztutako oharrak aztertzeari ekin aurretik, batzordeak berak, I. Sarasolaren ahotik, zerrendari bi sarrera gehiago eranstea proposatu du: batetik, *geu-reganatu* hitza erantsi behar zaio eta, bestetik, *gramoren* sinboloa den *g* sarrera ere bere tokian agertuko litzateke.

Ondoren, E. Knörrek aurkeztutako oharrak aztertzeari ekin diote euskaltzainek.

Oharren artean, *garaino/garaño* auzia berriz aztertzea eskatzen da. Sarasolak erantzuten dio, datu berririk ez denez, batzordeak lehengoari eusten diola. Horrela utzi da, beraz, kontua.

Garbigailu-ren ondoan ikuzkailu hitza ere sartzea eskatzen du ohargileak. Honek, hala ere, arazo bat du, *ikuzgailu/ikuzkailu* formen arteko hautua egin behar baita. Bes-
 tetik, *ikuzi* hitzaren estatusa ere erabaki beharko litzateke. P. Charrittonek azaldu du *ikuzi* eta *garbitu* ez direla gauza bera: ikuztea urez egiten da. Horrenbestez, gero ikusi beharko da kontu hau.

Garbitasun hitzaren bigarren adiera bat ('documentos personales') ezartzeko eskaria ez da ontzat eman, lehenbiziko buelta honetarako behintzat.

Zerrendan *kardu* forma hobesten da *gardu*-ren kaltetan. Honen zergatiak galdegiten du Knörr jaunak. *Kardu*-ren nagusitasuna argi dagoela erantzun zaio. S. Martin jaunak esan du *gar* hitzarekin zerikusia duen *gardu* hitz bat ere badela. Hala balitz, geroko utzi beharko litzatekeela erantzun zaio.

Kartzela/gartzela hitz bikotearen kasuan, zerrendan ez bezala, E. Knörrek *g*-dun forma hobetsi beharko litzatekeela dio. Erantzuna izan da testuetan *gartzela* formarik ez dela ia ageri. *Kartzela* da nagusi. Iparraldean *presondegi* formak hartu du lehentasuna. Gainerakoan, Arestik sartu zuen *gartzela* forma eta hortik sortu bide da gaurko nahastea. Hala ere, gaur egun *kartzela* forma nagusitzen ari da. Horrela geratu dira gauzak.

Gartak hitza sartzea eskatzen da oharretan. Bigarren pasaldirako uztea proposatzen du batzordeak eta hala onartu da.

Gaskoiera hitza dela eta, hitz zerrenda honetan ez da hizkuntza izenik sartu orain arte. Onomastika batzordearen kontua da eta batzorde horrek landutako zerrendetan agertuko dira horrelakoak. Hortaz, Euskaltzaindiak hizkuntzen izenak (ofizialenak eta bestelakoenak) erabakiko ditu eta hauek gero erantsiko zaizkio zerrendari, argitaratzen denean.

Gatzandel, *gatzitu*, *gau*, *gazitatu*, *general*, *gereta*, *gerizpe* eta *gerok* hitzei buruzko ohar-eskariak ez dira onartu.

Gerraontzi/gerrauntzi bikotea dela eta, Sarasola jaunak esan du batzordea *ontzi/untzi* bereizketarik ez egitearen aldeko zela eta *ontzi* forma nagusitzat ematearen aldeko. Nolanahi ere, datorren bileran aztertuko da berariaz gai hau, garrantzizkoa baita.

Gestio/jestio bikotearen arteko hautua erabakitzeko dago oraindik. Hau ere hurrengorako, hortaz.

Gibelatu hitzaren bigarren adiera ('handicapé') jasotzea eskatzen da. Hitza jaso dago zerrendan. Ez du ematen adieretan sartu behar denik, guztiz parekoa litzatekeen *atzeratu* hitzaren kasuan ere ez baita horrelakorik egin. Beraz, hitza dagoen dagoenean utzi da.

Giboi sarreran 'zimino mota bat' dela adieraztea erabaki da.

Giputz/gizpuzkoar hitzen falta nabaritu du Knörr jaunak. Erantzun zaio horrelakoak ez direla zerrenda honetan sartu. Gero, hizkuntza izenekin bezala, Onomastika batzordearen erabakiak sartzerakoan sartuko dira horrelako hitzak.

Gizon hitzaren ondoan *giza*- forma sartzeko eskariari buruz, esan da horrelakorik ez dela orain arte egin. Hitz osoak eman dira beti.

Gizakoi hitzak ez bide du nahiko lekukotasun eta, horrenbestez, bigarren pasaldirako uztea proposatu da.

Goait hitzari buruz izan da ondoren eztabaida. 'Zain egotea' baino zerbait gehiago da, antza: 'zelatan egotea' edo. B. Oihartzabalek adibideak eskatu ditu.

Gobernail hitza sartzea ez da onartu. Frantseskada hutsa denez, bigarren pasaldirako ere ez litzateke izango on.

Gobernutiar hitza bigarren pasaldirako utzi da.

Gaza/gasa hautua dela eta, Iparraldeko erabilera bada nazioarteko formarekin bat datorrena, hori eman beharko litzateke nagusizat. Beraz, hau izan da proposamena:

gasa* e. gaza 'chun mota'.

Bozkatu da proposamena eta aldeko 15 boto lortu dituenek, ontzat eman da. *Gaza* sarrera, jakina, bere horretan utziko da zerrendan.

Gimnasia/gimnastika eztabaida argitzeko ere bozkatu egin da. Batzordearen proposamenak, *gimnastika* hitza hobesten duenak, 16 boto lortu ditu. Horrenbestez, onartua gelditu da.

Ondoen, *girstino* hitzaz galdetu zaie euskaltzainei, forma horri zenbateraino eutsi nahi dioten jakiteko asmoz. Kristau hitzaren erabat parekotzat ematea onartu da. Beraz, multzo berekoak diren lau hitzetan "h." ikurra ezabatu egingo da.

Eta jaso diren aldaketa hauekin onartu da zerrenda.

1.1.2. *Hiztegi batuko gogobete-hautsarazi* zerrendaren aurkezpena.

Gogobete-hautsarazi zerrenda aurkeztu da ondoren, hurrengo bileran aztergai izango dena. Beti bezala, hilaren 20rako aurkeztu behar dira oharrak.

Zerrendarekin batera, *ontzi/untzi* eztabaida argitzeko, euskaltzainei hitz hauei buruzko lekukotasun-bilduma banatu zaie. Auzi hau ere hurrengo bileran ebartziko da.

1.2.1. *-Go atzizkiaz proposamena aurkeztea*.

LEF batzordetik datorren proposamen hau eskuetan jarri zaie euskaltzainei. Berez, aurkezpena egitea zen asmoa, besterik ez, baina astia badela ikusirik, txostena eztabaidatzea erabaki da.

Hona hemen testuari ezarri zaizkion aldaketak:

Lehendabizi, izenburua bera honela geratu da: "*-Go atzizkia eta izen multzokariak*". Lehendabiziko paragrafoa, berriz, honela: "Batez ere Iparraldeko euskalkietako den atzizki honek *-a* organikoa izan du garai batean eta oraino ere badu, zubereraz. Hala ere, azken garaian, *-go* forma nagusitu baita, honela onartuko da euskara batuan. Bi adiera nagusi izan ditu tradizioan zehar..."

Eta, azkenik, arauaren laburpena honela formulatua geratu da:

"Hau da, beraz, Euskaltzaindiaren erabakia:

1. Euskaraz askotan ez dago izen multzokariaren beharrik, nahikoa da plurala erabiltzea: *ikastetxe honetatko irakasle eta ikasleak, herri bateko biztanleak, hizkuntza bateko hiztunak*, etab.

2. Hala ere, izen multzokaria beharrezkoa denean, *-eria* atzizkia erabil bedi: *langileria, gazteria, biztanleria, ikasleria* edo *bezeria*.

3. *-Go* atzizkia erabil bedi:

- ofizioa, lanbidea, adierazteko: *artzaingoa, zurgingoa*, etab.
- tasuna adierazteko: *euskaldungoa, ahaidegoa*, etab.“

1.3. Euskaltzaindiak azken batzarrean emandako hizkuntz arauak.

Arau hauen artean *mundu zabaleko uharte nagusien zerrenda* aurkitzen da. X. Kintana jaunak zenbait huts badirela aipatu du eta zuzenketa proposatu: 2. orrialdeko 2. oharrean *nominatibo* ageri den lekuan *absolutibo* jartzea, eta leku berean, *Faroetan*, *Faroetara* barik *Faroetan*, *Faroetara* ezarri. Gauza bera 8. eta 13. orrialdeetan. 9. orrialdean, berriz, *Haizeldeko uharteak* ez, *Haizealdeko uharteak* baizik.

1.4. *Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaratzeko irizpideei buruzko erabaki-proposamena.*

Onomastika batzordearen txosten hau banatu zaie euskaltzainei hurrengo bileran eztabaidatzeko.

Dena den, Euskara Batuko batzordearen iritzia zein litzatekeen azaldu du I. Sarasolak. Pertsona-izen klasiko hauekin zerrenda itxi bat egitea da helburua. Ohiko jokabidea euskaraz latinez duten forma berean ematea izango litzateke, salbu oso arruntak eta ezagunak diren kasuetan. Azken kasu hauekin osatu behar da, hain zuzen, zerrenda itxi hori.

Ondoren, M. Gorrotxategi jaunak egin du txostenaren aurkezpena. Euskaltzainei eskatzen zaiena da zerrenda mugatu hori, jatorrizko formatik zerbait bereizten diren hitzen zerrenda, alegia, osatzeko aplikatu behar diren iritziak finkatzea.

Kontu hau ere hurrengo bileran eztabaidatuko da. Oharrak, orain ere, hilaren 20rako bidali behar dira.

2. Eskuarteakoak.

Madriko Kultura Ministerioak deitzen dituen Sari Nazionaletarako epaimahai-kideak eskatuko dituzte laster eta horretarako izenak proposatzeko beharra agertu du Lizundia jaunak. Hori dela eta, Premio Nacional de las Letras Españolas delakorako J. M. Satrustegi proposatzea onartu da. Gainerako sarietarako ordezkariak hurrengo batean aukeratuko dira. J. San Martin jaunak gogorarazi du, dena den, inor Euskaltzaindiaren izenean doanean, erakundea behar bezala ordezkatu eta gure izen ona behar bezala zainitzen saiatu behar duela.

3. Azken ordukoak.

Mahaiburuak Mariano Izeta jauna Baztango seme kutun izendatu dutela adierazi du eta, izendatze hau dela eta, Euskaltzaindiaren izenean zorionak ematea proposatu du.

J.M. Satrustegik, *Diario Vasco* egunkarian Latxaga jaunari egindako elkarrizketa bat dela medio, Euskaltzaindiari buruz esandakoak ekarri ditu mahai gainera. Euskaltzaindiak ez al du -galdetu du Satrustegik- komunikabideen aurrean zerbait egin behar bere burua babesteko? X. Kintanaren ustez, Euskaltzaindiari marketing piska bat falta zaio. San Martin jaunak esan du DV-ren burura jo behar dela esan du. On litzatekeela egunkari horretako buruekin elkarrizketa serio bat egitea gauzak bere neurrian jartzeko. Euskaltzaindia ez da iristen komunikabideetara zuzen litzatekeen neurrian eta hau kon-

pondu behar da. Adibidez, Barañaingo arazoaz egindako adierazpena ez dute egunkariak bere osoan eman. Horrelakoen aurrean zerbait egin beharra ikusi da.

P. Charritonek beste zenbait puntu atera nahi izan ditu. Batetik, Baionako elizbarrutiak ireki berri omen duen 'centre de catéchèse' delakoarentzat *katetxe* euskal ordaina (?) asmatu omen dute. Hau dela eta, Euskaltzaindiak zerbait adierazi behar omen lieke honetan ardura dutenei.

Ruñean hizkuntza gutxituen egoeraz izan den sinposio batean izan omen da gonbidaturik, Nafarroako Ateneoan. Ateneo honetan bertan, geroago, beste biltzarren bat ere izan omen da baina oraingoan euskarari eraso egin omen zaio. Charritonek hori onartezintzat jo du eta Euskaltzaindiak horrelakoen aurrean zerbait egin behar lukeela adierazi du. Satrustegik erantzun dio esanez, Ateneoa zerbait irekia dela eta bateko eta besteko iritziak eta erasoak botatzeko leku gertatzen dela.

Bestalde, aldizka-aldizka zabaltzen den *Albistorria* dela eta, Charritton jaunak bi puntu azpimarratu nahi izan ditu: a) orri hori euskaltzain oso guztiei helarazi behar litzaikeela eta b) on litzatekeela, gainerako berrien ondoan, xifra zenbait ematea ere, Euskaltzaindiaren diru gorabeherak azalduz. Lizundia jaunak erantzun dio orri hori dagoeneko euskaltzain gehienen eskuetara iristen dela, baina inolako arazorik ez dagoela euskaltzain oso guztiengana helarazteko. Eskatzen diren xifrez, berriz, zuhurtziaren agindupean egon behar dugula eta ez dela on horrelako orri batean zenbait diru kontu azaltzea. Kontu horien berri euskaltzainek izango dute, baina ez, nahitaez, albiste orri batean.

Azkenik, Charritton jauna kexu agertu da edozeinek eskura dituen hiztegieta zuzenez eta neke handirik gabe kontsulta litezkeenak argitzeko beregana jo duelako Exonomastika batzordeak. Erantzun zaio berak eskaini zuela bere burua testua berrikusteko.

Bide batez, Sarasola jaunak *Albistorri* deitura gaitzetsi du. Hobe litzatekeela *Albiste orri*.

X. Kintanak gogorarazi du garai batean Bilboko Aurrezki Kutxa Muzicipalak urtero ikerketa sariak banatzen zituela, baina Bizkaiko bi kutxek bat egin zutenetik ez dela gehiago horrelakorik egiten. Hau dela eta, zerbait egin behar omen litzateke.

Eta besterik gabe, ordu bata eta erdietan amaitu da Euskaltzaindiaren batzarra.

Euskaltzainburuak,
Jean Haritschelhar

Idazkariak,
Patxi Goenaga